

2026. urtean (2025eko abendua barne) lurzoru publikoa feriekin okupatzeko baimenak emateko prozedura eta baimena bera arautzen duen oinarri arautzaileak

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da, 1372/1986 Errege Dekretuko 75.1.b) eta 77.2 artikuluetan oinarrituta, 2026. urtean, (2025eko abendua barne) behean jasotako data edo epealdietan **nagusiki 2-10 urte bitarteko adingabeei zuzendutako** feriekin lurzoru publikoa okupatzeko baimenak emateko zerrendak sortzea.

Zehazki honako datetan:

- 1.- Gabon garaian, Munibe plazan. Azaroaren 28tik hurrengo urtarrilaren 6aren ondorengo lehen igandera arte (Okupazioak modu zabalean errespetatu beharko ditu terrazekin egiten den okupazioa eta oinezkoen pasaguneak):
 - 2025eko azaroaren 28tik 2026ko urtarrilaren 11ra.*
- 2.- Karnabal garaian, Fraiskoazuri plazan. Karnabaletako asteartearen aurreko asteazkenetik, ondorengo igandera arte (Okupazioak modu zabalean errespetatu beharko ditu terrazekin egiten den okupazioa eta oinezkoen pasaguneak):
 - 2026ko otsailaren 11tik otsailaren 22ra arte.*

Lursailen banaketa eta neurriak oinarri arautzaile hauekin batera argitaratutako **planoetan** azaltzen dira.

Aipatu data horiek data efektiboak dira, alegia, egun bat lehenago instalatzeko aukera egongo da. Instalazioarekin hasi aurretik, Udalatzaingoarekin jarri beharko da harremanetan.

Gutziz debekatuta dago goian aipatutako lursaila ez den beste edozein tokitan okupaziorik egitea.

*Epealdi eta data hauek irizpide orokorretara egokitzeke unean doitu ahal izango dira, eta hala, okupazio-eremuak handitu edo ezabatu zein tokiz aldatu daitezke. Horretaz gain, data edo toki berriren bat okupatzeko aukera zabaldu dezake udalak, eta hartara, posta elektronikoz bidaliko zaie aukera zozketa honetan parte hartu duten denei, eta hala gertatuko balitz, toki eta data berriren baten lurzorua okupatzeko eskaera aurkeztu duenari ere.

2. Eskakerak

Interesa duen edozein pertsona fisikok edo juridikok –betiere baimena eskatzen duen jarduerarako betebeharrak betetzen baditu–, edo haren legezko ordezkariak egin ditzakete eskaerak **F0140C** inprimakia beteta eta bertan azaldu beharko dute zein datetan nahi duten okupaziorako baimena, bai eta oinarri arautzaile hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela ere.

Interesdunek Bergarako Udaleko Erregistro Orokorretan (paperean edo elektronikoki) aurkeztu beharko dute eskaera. Udala EIS zerbitzura atxikita dago (EIS: Erregistroen Interkonexio Sistema) eta zerbitzu horren bidez, interesatuek udal honetara bideratutako eskaerak edo agiriak beste administrazio batzuetan erregistratu ditzakete, modu seguruan eta legezko adostasunarekin. Beraz, honako hauetan ere erregistratu ditzakete:

- EIS sistemaren barruan dagoen edozein administrazio publikotan (udalak, aldundiak, autonomia-erkidegoak, estatuko administrazioa edo mendeko erakundeak), haien erregistro-arloko arreta-bulegotan.
- Postetxean, EBBE (ORVE) zerbitzuan.

Eskaerak aurkezteko epea **2025eko azaroaren 3an, eguerdiko 13:00etan** bukatuko da.

3. Baimen-hartzaileen betebeharrak

Adjudikazio-hartzaile edo baimendunaren betebeharrak:

1.- Baimen-hartzaileak honako betebeharrak izango ditu:

- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzako betebeharratan egunean egotea.
- Bergarako Udalarekiko betebeharratan egunean egotea.
- Dagokion epigrafean, Jarduera Ekonomikoen Zergan altan egotea.
- Erantzukizun zibileko poliza kontratatuta izatea jarduera hori babesteko (gutxienez 150.000 euroko estaldurarekin).
- Aplikatu beharreko arau teknikoak, bai instalazioei bai jarduerari buruzkoak.
- Prezioak jendaurrean jartzea, ondo ikusteko lekuan ipinita. Prezioek euren barne izango dituzte zergak. Saltzaileak zerbait saltzen duenean, erosleak eskatzen badio, derrigorrez entregatu behar dio faktura, ticketa edo erreziboa.
- Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, bizileku- eta lan-baimenak lortu izana, edo bizitzeko eta lan egiteko gaitzen dituen beste edozein agiri.
- Lan-harremani, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higienerari buruz indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzea. Udalak ez du erantzukizunik izango interesdunak egin ditzakeen ez-betetzeengatik.

2.- Bere gain hartzea pertsoneri eta/edo ondasunei eragindakoa istripuen eta kalte-galeren (zuzenekoak eta zeharkakoak) erantzukizuna, jardueraren edozein fasetan sortutakoak, muntatzean eta desmuntatzean barne. Jarduera horren aurrean udalak hirugarren baten izaera izango du.

3.- Jarduerak berak eta beraren gauzatzeak honako baldintzak ere bete behar ditu

- Baimen-hartzaileak ezin izango ditu adjudikatutako neurriak aldatu, Udalak baimena eman ezean. Udal baimenik gabe neurriak aldatzen badira, okupazio errealetik gorako okupazioa kobratuko zaio udal ordenantza fiskaletan jasotakoari jarraituz.
- Argindarraren horniketa baimen-hartzailearen kontura izango da, eta debekatuta dago udal saretik hartzea. Erabili beharreko argindarra 50 Kw baino gutxiagokoa denean, dagokion buletina egin beharko da instalatzaile ofizial baten bitartez, eta 50 Kw-koa edo gehiagokoa denean buletina eta proiektu elektrikoa beharko da, eta instalatzaile ofizialak egin beharko ditu lotura guztiak. Iberdrolarekin argindarra hornitzeko kontratua sinatu beharko da eta hornidura ferrialariaren kontura izango da.
- Jostalekuak jartzeko ezingo da lurra zulatu.
- Erreklamazio-orriak izan beharko dituzte eta horren berri ikusgai jarri.
- Musika: Musika euskalduna jarri beharko dute denbora gehienez. Edonola ere, ezingo da zarata iskanbilatsurik edo bolumen handikorik erabili txanda edo denbora bakoitza bukatzen dela adierazteko. Eta musika eta soinuak ezingo dira jarri edo erabili 20:30etik 12:00ak bitartean, ezta 14:30etik 17:00ak bitartean ere.

Behar berezidun pertsonak atrakzioekin gozatzeko, aukera izango du Udalak ordu jakin batzuetan musika jartzea debekatzeko edota premia bereziak dituen umeren bat ilara egiten baldin badago hari lehentasuna eman diezaiotela agintzeko. Musika

bolumenagatik edo ordutegiagatik kexak jasoko balira, udalak musika kendu edo bolumena jaitea eskatu ahalko die eta derrigorrezko agindua izango da.

- Araudiak hala eskatuz gero, su-itzalgailuak izan beharko dituzte instalazio-aldi osoan, berrikusita, leku ikusgarrietan eta erraz iristeko moduko lekuetan jarrita, larrialdi-kasuetarako.
- FERIA martxan izateko ordutegiari dagokionean, zabalik izango dute goizeko 11:00etatik 14:30era bitartean eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean. Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan beranduen ere 22:00etan itxi ahalko da.
- Jarriko den feriak ezingo du erabakian adierazitako azalera gainditu.
- Hizkuntzari dagokionean, honako irizpide hauek izango dira kontuan:
 - o Jendaurrean jartzen diren kartelak eta bestelako informazioak gutxienez euskaraz egon beharko dira (edo behar denean euskaraz eta gaztelaniaz, biak material berean eta euskarari lehentasuna emanda).

Testuak euskaratzeko laguntza behar izanez gero, UEMAra jo daiteke (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. 943 81 66 99 edo komunikazioa@uema.eus), gutxienez astebeteko aurrerapenarekin.
 - o Horrez gain, musika jartzen duten jostalekuek % 75 euskaraz jarri beharko dute eta erabiltzaileekiko ahozko adierazpenetan ere euskara erabiliko da ahal den guztietan.
- Abenduko garaian jartzen den feriak Bedelkar elkartearekin (Bergarako merkatariak) hitzarmena adostuko du elkarteak hala irizten badio, dendariak fitxa bidez edo agiri bidez bidaiak eskaintzeko aukera izan dezaten. Baimena bertan behera utzi ahal izango du Udalak elkarteak, interesa, izan eta adostasun batera heltzen ez badira baimen-hartzailea eta elkarteak. Kasu horretan, zerrendan hurrengo dagoenari eskainiko zaio okupazioa egiteko aukera.
- Jostalekuaren gutxienezko iraupena 2 minutukoa izango da. Prezioa zehazten ez den arren, bonu sistema bat izan beharko du baimen-hartzaileak. Bai prezioa eta bai iraupena modu argian egongo da ikusgai.
- Atrakzioak edo instalazioak kontserbazio-egoera onean eta ingurua garbi edukitzea baimendutako aldi osoan.
- Ezingo da inolako publizitaterik instalatu, udalaren baimenarekin izan ezik.

Abenduaren 23ko 10/2015 Legeko IV. Tituluari jarraiki, Udaleko teknikari arduradunek ikuskapena egin ahal izango die titularrei edozein momentutan, eta automatikoki itxiko dute edozein feria aipatu betebeharren bat betetzen ez dela antzeman bezain laster.

4. **Zerrenden osaketa eta esleipenak**

Eskaerak batu ostean, eta webgunean adierazitako egunean, arestian zerrendatutako epealdietarako zerrendak osatuko dira zozketa bidez. Epealdi bakoitzeko zerrenda bat egingo da eskaeran epealdi horrekiko interesa agertu dutenekin. Zerrenda horretan oinarrituta, hurrenkeraren arabera egingo dira epealdi bakoitzeko esleipenak.

Zerrendak eratzeko **zozketa publikoa** izango da eta *streaming* bidez jarraitu ahal izango da honako estekan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_bergara_es.html. Zozketaren emaitza web-orrian argitaratuko da, **Kultur Sailari** dagokion atalean (*Lurzoru Publikoa Okupatzeko Deialdiak*), eta horrek jakinarazpen-izaera izango du eragin guztietarako. Zozketa eguna iragarri egingo da toki berean. Argitalpen hauek jakinarazpen izaera izango dute eragin guztietarako. Zozketa **2025eko azaroaren 6an egingo da, 9:30etan**.

Sortutako zerrendaren (hurrenkeraren) arabera baimena lortzeko aukera duen interesdunak data baino **hamar (10) egun baliodun lehenago** egiaztatu behar du baldintzak betetzen dituela, eta horien agiriak aurkeztu beharko ditu, zehazki honako hauek:

- 1.- Erantzukizun zibileko poliza kontratatuta dutela jarduera hori babesteko (gutxienez **150.000** euroko estaldurarekin). Egiaztatze aldera, poliza eta berau ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko dira.
- 2.- Dokumentazio teknikoa, non egiaztatuko den betetzen direla, gutxienez, atrakzioa deskribatzeko eta hura muntatu, mantendu, zaindu eta erabiltzeko jarraibideei buruzko segurtasun-baldintzak. Dokumentazio teknikoak dimentsioak jaso beharko ditu.
- 3.- Atrakzioaren urteko berrikuspen-ziurtagiria, eskumena duen teknikari tituludunak edo ikuskatze-erakunde egiaztatuak egina.
- 4.- Suteen aurka babesteko instalazioen urteko berrikuspenaren ziurtagiria, UNE 23120 arauaren «Urteko Mantentze Programan» eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera mantentze-lanak egin izana egiaztatzen duena.
- 5.- Langile edo titular guztien zigor-aurrekari sexualen ziurtagiria.

Era berean, **instalatu ondoren**, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Segurtasun- eta sendotasun-ziurtagiria, atrakzioaren muntaia bakoitzean eskumena duen teknikari tituludunak edo ikuskapen-erakunde egiaztatuak egina.
- Hornidura elektrikorako kontratuak eta, hala badagokio, buletina.

Halaber, Bergarako Udalak ofizios egiaztatuko du, datuen bitartekaritza-plataformen eta dagozkien kontsulten bidez, honako informazio hau:

- Bergarako Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea.
- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Jarduerarako erabiliko duen ibilgailuak dagokion azterketa teknikoa igaro izana.
- Langile edo titular guztien zigor-aurrekari sexualen ziurtagiria. Ildo horretan, Udalak langileen izen abizenak eta NAN zenbakiak eskatuko dizkio baimen-hartzaile posibleari posta elektronikoz.

Interesdunek egiaztapen edo kontsulta horien aurka egiteko eskubidea dute. Kasu horretan, idazki arrazoitua aurkeztu beharko diote udalari, eta dagozkion datuak eta dokumentuak aurkeztu.

Udalak ezin baditu aipatutako kontsultak egin, dagokion dokumentazioa eskatu ahal izango dio interesdunari.

Aipatu epe horretan aurkeztu beharreko dokumentazioa zuzentzeko aukerarik ez da emango 10 egun balioduneko epetik haratago. Epe hori baino lehenago dokumentazioa aurkeztuko balu interesdunak eta zuzentzeko edo osatzeko beharra egongo balitz, zuzentzeko eskaera luzatu ahal izango dio udalak posta elektronikoz, 39/2015 Legeak aurreikusitako epeak aplikagarri izango ez direlarik.

Horretaz gain, okupazioari dagozkion **tasak** ordaindu eta **375** euroko **fidantza** jarri beharko dute honako kontu korrante honetan: KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569. Behin-behineko esleipena jakinaraziko zaio interesdunari, eta jakinarazpenarekin batera, tasa ordaintzeko erreziboa helaraziko zaio. Baimena behin betikotzat joko da tasa ordaintzen denean. Ildo horretan, okupazioa gauzatu baino lehen izan beharko du tasa ordainduta (okupazioaren aurretiko lanegunean, eguerdiko 13:00ak baino lehen); ez da onartuko egunean

bertan esku-dirutan egindako ordainketarik. Tasa ordaindu dela egiaztatzeko, egiaztagiria helarazi beharko da kontratazioa@bergara.eus posta elektronikora.

Behin baimena esleituta, identifikazio txartela emango zaio ferialariari. Ferialari horrek identifikazio txartela eskura izan beharko du uneoro.

Aipatu diren hamar (10) egun horiek baino lehen ez bada konfirmaziorik jasotzen interesdunaren aldetik, ohartarazpen edo jakinarazpenik egin gabe **automatikoki okupaziorako baimenari uko egin dela ulertuko da**, eta udala harremanetan jarriko da hurrenkeraren arabera dagokion hurrengo interesdunarekin.

Era berean, baimena esleituko balitz eta, arrazoia edozein izanda ere, **baimendua ez balitz baimendutako egunean bertaratuko, edo behin-behineko esleipena izanda ez balu tasa ordainduko, zerrenda guztietan (epealdi guztietan) atzeko posiziora pasatuko da automatikoki.**

5. Udalaren betebeharrak

Udalak aurretik finkatutako guneak gordeko dizkie, eta udalaren baimenik ez duen beste inork ez duela jardungo bermatuko die.

6. Ustiatzeko eskubidea

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du okupaziorako baimena edo eskubidea beste edozeini laga edo zeditu.

Baimendutako pertsonak edo enpresek eskubide hauek izango dituzte:

- Jarduera jendaurrean eta modu baketsuan egitea, zehaztutako ordutegian eta baldintzetan.
- Udalak emandako baimena adierazten duen identifikazio-txartela jasotzea.
- Instalazioa non kokatuko den jakiteko eskubidea.

7. Araudi aplikagarria

Deialdiari eta deialdian oinarrituta esleitutako baimenei, nagusiki, honako araudia zaie aplikagarri:

- Oinarri arautzaile hauetan zehaztutakoak.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena
- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunena eta Jolas Jarduerena.
- Aipatu araudia garatzen duten bestelako arauak.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadin 2026.urtean (2025eko abendua barne) lurzoru publikoa feriekin okupatzeko baimenak emateko prozedura eta baimena bera arautzen dituzten oinarri arautzaileak 2025ko abuztuaren 7an emandako dekretuz onartu direla.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

BEHIN-BEINEKO IDAZKARIA

Bases reguladoras de las autorizaciones y del procedimiento de concesión de las mismas para ocupación de suelo público con ferias en el año 2026 (incluido diciembre de 2025)

1. Objeto de la convocatoria

Constituye objeto de la presente convocatoria, en base a los artículos 75.1.b) y 77.2 del Real Decreto 1372/1986, la elaboración de listados para concesión de autorizaciones de ocupación de suelo público con ferias **destinadas principalmente a menores de 2 a 10 años**, durante el año 2026 (incluido diciembre de 2025) en las fechas o periodos abajo reseñados.

Concretamente:

- 1.- En temporada de Navidad, en la plaza Munibe. Desde el 28 de noviembre y hasta el domingo siguiente al 6 de enero (La ocupación deberá respetar ampliamente la ocupación que se realiza con terrazas así como las zonas de tránsito de peatones):

- 2.- En temporada de Carnaval, en la plaza Fraiskozuri. Desde el miércoles anterior al martes de Carnaval hasta el siguiente domingo (La ocupación deberá respetar ampliamente la ocupación que se realiza con terrazas así como las zonas de tránsito de peatones):
 - Del 11 de febrero al 22 de febrero de 2026.*

La distribución de parcelas y sus medidas figuran en los **planos** publicados junto con las presentes bases reguladoras.

Está terminantemente prohibida la ocupación en cualquier otro lugar que no sea el señalado arriba.

*Estas fechas y periodos podrán ser ajustados a fin de adecuarse a los criterios generales, pudiendo ampliarse o suprimirse los espacios de ocupación o cambiar su ubicación. Además, el ayuntamiento podrá ampliar la posibilidad de realizar ocupación en una nueva fecha o lugar, para lo cual dicha opción será enviada por correo electrónico a todas las personas que han participado en este sorteo y, en su caso, también a quien haya presentado solicitud para ocupación de suelo en nueva fecha o lugar.

2. Solicitudes

Podrá formular sus solicitudes cualquier persona física o jurídica interesada –siempre que cumpla los requisitos para la actividad cuya autorización solicita–, o bien su representante legal, cumplimentado el impreso **F0140C**, en el que deberán indicar en qué fechas desean la autorización para la ocupación, declarando que conocen y muestran su disposición a cumplir todas las obligaciones recogidas en las presentes bases reguladoras

Las personas interesadas deberán presentar la documentación (en papel o de manera electrónica) mediante el Registro General del Ayuntamiento de Bergara. Dado que el Ayuntamiento de Bergara está adherido al Sistema de Interconexión de Registros (SIR), que mediante dicho servicio, las personas interesadas pueden registrar en otras administraciones las solicitudes o documentos dirigidos a este ayuntamiento, de un modo seguro y con conformidad legal. Así pues, podrán registrarlas también:

- En las oficinas de atención y registro de cualquier administración pública (ayuntamientos, diputaciones, comunidades autónomas, administración estatal u organismos dependientes) siempre que esté integrada en el sistema SIR.

- En Correos, en el servicio ORVE.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará a las **13:00 horas del día 3 de noviembre de 2025**.

3. Obligaciones de las personas o entidades autorizadas

Obligaciones de las personas o entidades adjudicatarias o autorizadas:

1.- Constituirán obligaciones de las personas o entidades autorizadas:

- Estar al corriente en sus obligaciones con la Seguridad Social y Hacienda Foral de Gipuzkoa.
- Estar al corriente en sus obligaciones para con el Ayuntamiento de Bergara.
- Estar dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, en el epígrafe correspondiente.
- Tener contratada una póliza de responsabilidad civil que cubra dicha actividad (con una cobertura mínima de 150.000 euros).
- Cumplir las normas técnicas que sean de aplicación tanto respecto a las instalaciones como a la actividad.
- Exponer públicamente los precios, en lugar bien visible. Dichos precios incluirán los impuestos. Una vez realizada la venta, si la persona compradora se lo pide, la vendedora está obligada a entregarle la factura, ticket o recibo.
- En el caso de personas extracomunitarias, haber obtenido los permisos de residencia y trabajo, o cualquier otro documento que las habilite para residir y trabajar.
- Cumplir lo establecido en cuantas disposiciones estén en vigor en materia de relaciones laborales, Seguridad Social y seguridad e higiene en el trabajo, quedando el ayuntamiento exonerado de cualquier tipo de responsabilidad por los incumplimientos en los que pudiera incurrir la persona o entidad interesada.

2.- Asumir la responsabilidad de los accidentes y daños y perjuicios (directos e indirectos) causados a personas y/o bienes en cualquier fase de su actividad, incluido el montaje y desmontaje. Respecto a dicha actividad, el ayuntamiento tendrá carácter de tercero.

3.- La actividad y su desarrollo deberá cumplir además los siguientes requisitos:

- La persona o entidad autorizada no podrá modificar las dimensiones adjudicadas sin la autorización del ayuntamiento. En caso de modificarlas sin autorización municipal, se procederá al cobro del exceso de superficie real ocupada de conformidad con lo establecido en las ordenanzas fiscales municipales.
- El suministro de energía eléctrica correrá a cargo de la persona o entidad autorizada, quedando prohibido hacerlo desde la red municipal. Si la potencia necesaria es inferior a 50 Kw, deberá de realizar el "boletín" correspondiente mediante un instalador oficial; pero si la potencia es de 50 Kw o superior, será preciso el boletín y un proyecto eléctrico, debiendo efectuar todas las conexiones dicho instalador oficial. Deberá firmarse con Iberdrola un contrato de suministro eléctrico, que correrá de cuenta del feriante.
- Para la instalación de las atracciones no podrá agujerarse el pavimento.
- Deberán disponer de hojas de reclamaciones y dar cuenta de ello exponiéndolo al público.

- Música: La música deberá ser mayoritariamente euskaldún. En todo caso, no podrán utilizarse sonidos estridentes o de volumen excesivo para señalar el fin de cada vuelta o turno, no pudiendo emitir sonido alguno ni poner música entre las 20:30 y las 12:00 horas, ni entre las 14:30 y las 17:00 horas.

A fin de que las personas con necesidades especiales puedan disfrutar de las atracciones, el ayuntamiento podrá prohibir la música a determinadas horas u ordenar que se dé prioridad a los niños o niñas con necesidades especiales que estén en la cola. En caso de que se recibieran en el ayuntamiento quejas por el volumen u horario de la música, el ayuntamiento le podrá requerir que la quite o que baje su volumen, constituyendo una orden de obligado cumplimiento.

- Si la normativa lo requiere, deberán disponer de extintores, durante todo el periodo de instalación, revisados, colocados en lugares visibles y de fácil acceso, para casos de emergencia.
- Respecto al horario de funcionamiento de la feria, estará abierta por la mañana entre las 11:00 y las 14:30 horas y por la tarde entre las 16:00 y las 20:00 horas. Los viernes, sábados y vísperas de festivo se podrá cerrar como máximo a las 22:00 horas.
- La feria que se instale no podrá superar la superficie que se indique en la resolución.
- Respecto al idioma, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:
 - o Todos los carteles que se coloquen en la feria, así como cualquier otra información, deberán estar al menos en euskera (y si fuera preciso en euskera y castellano, ambos con el mismo material y dando prioridad al euskera).

En caso de necesitar ayuda para traducir los textos al euskera, pueden contactar con UEMA, con al menos una semana de antelación (UEMA - Mancomunidad de Municipios Euskaldunes: 943 81 66 99 o komunikazioa@uema.eus).

- o Además, las atracciones con música deberán programar la misma en un 75 % en euskera, y se utilizará como lengua oral con las personas usuarias siempre que sea posible.
- La feria que se vaya a instalar en diciembre deberá acordar un convenio con la asociación de comerciantes de Bergara Bedelkar, si la asociación así lo considera, a fin de que los comercios puedan ofrecer viajes mediante fichas o tickets. Si la asociación está interesada y no llegan a un acuerdo con la feria autorizada, el ayuntamiento podrá revocar la autorización. En este caso, se ofrecerá la posibilidad de realizar la ocupación a la siguiente persona o entidad que figure en la lista.
- La duración mínima de la feria será de 2 minutos. Si bien no se establece el precio, la feria autorizada deberá contar con un sistema de bonos. Tanto el precio como la duración deberán estar expuestos claramente.
- Mantener las atracciones o instalaciones en buen estado de conservación y de limpieza del entorno durante todo el periodo autorizado.
- No se podrá instalar ningún tipo de publicidad, salvo con autorización municipal.

De conformidad con el Título IV de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, el personal técnico responsable del ayuntamiento podrá realizar una inspección a los/as titulares en cualquier momento, pudiendo llegar a cerrar automáticamente cualquier feria inmediatamente si se detecta el incumplimiento de alguna de las citadas obligaciones.

4. Formación de listados y adjudicaciones

Una vez recopiladas las solicitudes, en la fecha indicada en la web se celebrará el sorteo mediante el cual se conformarán los listados para los periodos anteriormente enumerados. Se elaborará un listado por cada periodo, con quienes hayan mostrado interés por el mismo en su solicitud. En base a dicho listado se realizarán las adjudicaciones de cada periodo conforme al orden de prelación.

El **sorteo** de conformación de listados será **público** y se podrá seguir por *streaming* en el siguiente enlace: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_bergara_es.html. El resultado del sorteo será publicado en la página web, en la sección correspondiente al **Departamento de Cultura (Convocatorias de Ocupación de Suelo Público)**, lo cual tendrá carácter de notificación a todos los efectos. La fecha de celebración del sorteo se anunciará también en ese mismo lugar. Estos anuncios tendrán carácter de notificación a todos los efectos. El sorteo se realizará el **6 de noviembre de 2025, a la 9:30**.

La persona o entidad interesada que de acuerdo con el orden del listado elaborado pueda obtener la autorización, **en el periodo de diez (10) días hábiles anteriores** a la fecha, deberá acreditar el cumplimiento de los requisitos, aportando la documentación de los mismos; en concreto:

- 1.- Acreditación de tener contratada una póliza de responsabilidad civil que cubra dicha actividad (con una cobertura mínima de **150.000** euros). Para su acreditación, se deberán presentar la póliza y el justificante de haberla abonado.
- 2.- Documentación técnica en la que se acredite el cumplimiento de las condiciones de seguridad relativas, al menos, a la descripción de la atracción, instrucciones de montaje, mantenimiento, conservación y uso. La documentación técnica deberá recoger las dimensiones.
- 3.- Certificado de revisión anual de la atracción, realizado por persona técnica titulada competente o por entidad de inspección acreditada.
- 4.- Certificado de revisión anual de las instalaciones de protección contra incendios que certifique haber realizado las operaciones de mantenimiento según lo establecido en el «Programa de Mantenimiento Anual» de la norma UNE 23120 y demás normativa aplicable.
- 5.- Certificado de antecedentes penales sexuales de todas las personas trabajadoras.

Asimismo, **una vez instaladas** las ferias y casetas, se deberán presentar las siguientes:

- Certificado de seguridad y solidez, realizado en cada montaje de la atracción por persona técnica titulada competente o por entidad de inspección acreditada.
- Contratos para el suministro eléctrico y, en su caso, boletín.

Asimismo, el Ayuntamiento de Bergara comprobará de oficio, a través de las plataformas de intermediación de datos y de las correspondientes consultas, la siguiente información:

- Si se halla al corriente en sus obligaciones para con el Ayuntamiento de Bergara.
- Si está dada de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente.
- Hallarse al corriente en sus pagos para con la Seguridad Social.
- Hallarse al corriente en sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa.
- Si el vehículo que utilizará para la actividad ha superado la inspección técnica correspondiente.

- Certificado de antecedentes penales sexuales de todas las personas trabajadoras. En este sentido, el ayuntamiento solicitará a la posible persona autorizada los nombres y apellidos y DNI de las personas trabajadoras.

Las personas interesadas tienen derecho a oponerse a dichas comprobaciones o consultas, en cuyo caso deberán presentar al ayuntamiento un escrito motivado y aportar los datos y documentos correspondientes.

En caso de que el Ayuntamiento no pueda realizar las consultas mencionadas, podrá requerir a la interesada la documentación que corresponda.

No se admitirá la subsanación de la documentación a presentar en dicho plazo más allá del plazo de 10 días hábiles. Si antes de dicho plazo el/la interesado/a presentara la documentación y fuera necesario subsanarla o completarla, el Ayuntamiento podrá solicitar la subsanación por correo electrónico, no siendo de aplicación los plazos previstos en la Ley 39/2015.

Además, deberá abonar las **tasas** correspondientes a la ocupación (mediante recibo remitido por el ayuntamiento) y depositar una **fianza** de **375** euros en la siguiente cuenta corriente: KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569. La adjudicación provisional será notificada a la persona o entidad interesada y junto con ello se le dará traslado del recibo para el pago de la tasa. La autorización se entenderá como definitiva una vez abonada dicha tasa. En este sentido, la tasa deberá estar abonada antes de las 13:00 horas del día laborable anterior al de la ocupación, y no se admitirán pagos en metálico en el mismo día. Para acreditar el pago de la tasa, se deberá enviar el justificante de pago al correo electrónico kontratazioa@bergara.eus.

Una vez adjudicada la autorización, se entregará la tarjeta de identificación al/la feriante, que deberá tenerla disponible en todo momento.

Una vez transcurrido el referido plazo de diez (10) días sin que se haya recibido confirmación por parte de la persona interesada, sin mediar ningún otro apercibimiento o notificación **se entenderá automáticamente que se ha renunciado a la autorización de ocupación**, de modo que el ayuntamiento se pondrá en contacto con la siguiente persona o entidad interesada que por orden corresponda.

Asimismo, en el supuesto de que, tras adjudicarle la autorización, **la persona autorizada por cualquier motivo no se presentará en la fecha autorizada, o no abonará la tasa de la adjudicación provisional, la misma pasará automáticamente en todos los listados (para todos los periodos) a la última posición.**

5. Obligaciones del ayuntamiento

El ayuntamiento les reservará con antelación los espacios establecidos, garantizando que nadie desarrollará la actividad sin autorización municipal.

6. Derecho de explotación

La persona o entidad adjudicataria no podrá ceder a terceros la autorización o derecho de ocupación.

Las personas o empresas autorizadas tendrán derecho a:

- A desarrollar la actividad de forma pública y pacífica en el horario y condiciones establecidos.
- A que se le expida la tarjeta de identificación que acredita la autorización municipal concedida.
- A conocer el lugar de ubicación de la instalación.

7. Normativa aplicable

A la convocatoria y a las autorizaciones concedidas en base a la misma, les es de aplicación principalmente la siguiente normativa:

- El contenido de estas bases reguladoras
- La Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas
- El Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales
- La Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas
- Cualquier otra norma de desarrollo de dicha normativa.

DILIGENCIA: Para hacer constar que las bases reguladoras de las autorizaciones y del procedimiento de concesión de las mismas para ocupación de suelo público con ferias en el año 2026 (incluido diciembre de 2025) han sido aprobadas mediante decreto emitido el 7 de agosto de 2025.

En Bergara, a la fecha de la firma electrónica

LA SECRETARIA ACCIDENTAL

